

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manoli Andonegi Uranga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1922-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Gaztelubide kalean jaio zen, Donostiako Parte Zaharrean. Umea zela, Kale Nagusira joan ziren bizitzera. Ama Mutrikukoa zuen, eta arrainpostua zeukan Bretxan. Aita donostiarra zen, eta tabakaleran egiten zuen lana. Lau senidetan zaharrena zen Manoli. Muñoaren eskolan ibili zen hasieran, eta Elizaranen gero, mojekin. Gerra hasi zenean Bizkaira joan ziren, osaba baten etxera; aita Santandergo tabakaleran hasi zen lanean. Ama eta seme-alabak ikatz bapore batean bueltatu ziren Pasaiara. 15 urterekin 'Graficas Izarra'n hasi zen lanean, Miracruz kalean (Gros), eta hantxe ezagutu zuen bere senarra izango zena, Felipe Alkorta antiguatarra. Antiguara joan ziren bizitzera, eta zazpi seme izan zituzten, bi bizki pare tarteko zirela.

Zintak

DON-077

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-16
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Gaztelubide kalea

- **Erref:** DON-077/002
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:03:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Manoli Gaztelubide kalean jaio zen. Inguru hori lehen eta orain berdintsu dagoela dio.</p>

Transkripzioa

- Hor, Gaztelubide kale hortan, inguru hortan zer zeon? Zu umia ziñala, nolakua zan?
- Ez, ez, hori oain bezela dao.
- Berdin-berdin?
- Berdiña dao. Zu juten zea Santa Marina ta ezkerrian ikusiko dezu / ikusikozu/ eskaillerak. Eta gero soziedadia, etxetxo bat oso polita. Bai. Oso txoko polita da. Ta gero bidia Gaztelura juteko.
- Eta hor lehen ze tailler eta zer zeon inguru hortan?
- Ez, ez, hor taillerrik ez da egon hor. Hor soziedade bat eta gehio ez. Hor taillerrik ez. Gero hortikan sartzen zea goian Gazteluan. Bai. Pasadizo bat dao polita. "La subida al castillo" deitzen da hori erderaz.

2. Gaztelubidetik Kale Nagusira

- **Erref:** DON-077/003
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:03:13. **Bukatu:** 00:03:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Manolik bost urte inguru zituela, familia Gaztelubide kaletik Kale Nagusira joan zen bizitzera. Etxe handia zen, eta jende asko bizi izan zen bertan (gurasoak, lau anai-arreba, osaba-izebak, aitona...)</p>

Transkripzioa

- Eta gero jun ziñeten bizitzera Kale Nagusira.
- Bai, 15era.
- Eta han nolakua zan zuen etxia?
- Oso ederra, haundiya. Han osabak eta danak bizitu giñan. Oso haundiya zan, bai.
- Zuek zenbat senide ziñeten?
- Nik dakazkit hiru anai. Ni naiz neska bakarra.
- Orduan, lau.
- Bai, hori da. Baiñon gero, osabak eta izebak, nola etxe haundiya zan, bizitzen zian alde baten, baiñon toki berdiñan, etxe berdiñan. Aitona´re bai.

3. Aitona ordea

- **Erref:** DON-077/004
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:03:43. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Amaren aita arrantzalea zen, eta itsasoan itota hil zen. Gero, amona beste gizon batekin ezkondu zen. Aitona ordeari buruz hitz egiten du;

donostiarra, antzerkirako eta kanturako zaletasuna zuen, eta Manoli eta bere anaiei kantuak irakasten zizkien.</p>

Transkripzioa

- Aitona ordezkua genun, zegatik aitona —nik ez nun ezagutu—, nere aman aita, ito in zan. Lehen arrantzaliak, ez zian oaingo baporiak bezelakuak, ta galdu iten zian zeonian itxaso haundiya. Ta aitona ito in zan. Baiñon gero amona berriro ezkondu zan ta aitona hori bizitu zan gurekin.
- Eta nungua zan aitona hori?
- Aitona hori hemengua zan, donostiarra zan. Bai, bai. Eta deitzen zan Maximino.
- Maximino?
- Bai. Maximino Alvarez Alkain. Alkain bigarrena zakan. Ta zan aitona bat... uuu! “un espléndido”.
- A bai?
- Bai, maite zigun ta kantatzen [zun]. Gaiñera gustatzen [zitzaion] asko teatroa jutea. Santa Marian, Kale Nagusian, daude teatruak. Badakizu. Propina ematen zion porteruak “y le dejaba pasar al abuelo al teatro. [...] qué propina le daría. Lo que sea. Y luego nos enseñaba a mí y a mis... [...] de la vecindad...”.
- Euskeraz...
- Bai. Baiño kantak...! Erderazkuak eta, “las zarzuelas” dana kantatzen genun!
- A bai, e?
- Uuu! Danetatikan.

4. Parrokiko koruan kantari

- **Erref:** DON-077/005
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Gaztetan, Manolik parrokiako koruan kantatzen zuen. Garai hartan, gizonak eta emakumeak aparte egon behar izaten zuten elizan (neskak behean abesten zuten; mutilek goian). Apaizarekin ikasten zituzten abestiak, eta, gero, igandeko meza nagusian kantatzen zituzten. Euskaraz, latinez... abestu ohi zuten.</p>

Transkripzioa

- Baiño gero kantatu det parrokian, elizan. Bueno, koruak egoten dia. Bihan kantatzen [zan]. Oain andriak iyotzen dia gora, baiño lehen ez zian iyotzen gora gizonak zeuden tokira. “Antes las mujeres éramos...”
- Aparte.
- Aparte, bai.
- Gizonak toki baten ta...
- Bai, neskak bihan kantatzen genun. Genun, gaiñea, apaiz bat... nola zan? “Cariñoso pero educau. Nos trataba”... Beakin ikasi ta kantatu gero igandian mezak. Bihan. Meza nausian.
- Eta ze abesti izaten zian, euskeraz?
- Bai, bai, euskeraz. Ta kantatu [behar bagenun] latinez zerbait e bai ,kantatzen genun.
- A bai?

- Klaro, "lo que salía o lo que teníamos que cantar". Gabonetan gabon kantak.
- Eta gogoratzen dezu kantan bat?
- Bai! "Belengo portalian...". Oain ez nijua kantatzera, baiño bai, danak, gauz hoiek gogoratzen naiz.

5. Osaba musikaria

- **Erref:** DON-077/006
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:06:01. **Bukatu:** 00:06:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Manoliri etxetik datorkio kanturako zaletasuna. Osaba bat Orfeoiko (Eusko Gaztedi aipatzen du) bigarren zuzendaria zen.</p>

Transkripzioa

- Gaiñera, etxean beti kantatzen genun.
- A bai? Danak kantuzaliak?
- Bai. Eske nere osaba ´re izan zan bigarren zuzendaria, asike musika zekiten.
- Bigarren zuzendaria, nungua?
- Orfeoikua. Bai. Donostiko orfeoikua. Eusko, Gaztedi; Eusko Gaztedi. Orfeoi donostiarra zan aparte; gero Eusko Gaztedi beste bat.

6. Txistulariak eta dantza

- **Erref:** DON-077/008
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:07:21. **Bukatu:** 00:08:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Gaztetan, etxeko lanak egin (neskek etxean lagudun behar izaten zuten), igandeko arropak jantzi eta plazara joaten ziren. Lehendabizi, txistularien kontzertua izaten zen udaletxe azpian, eta, gero, dantzarako bi pieza jotzen zituzten. Manoli Ansorena txistulariaren alaben laguna zen. Dantzan gustura aritzen ziren.

7. Gurasoak

- **Erref:** DON-077/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Manoliaren ama mutrikuarra zen, eta aita, berriz, donostiarra. Aitak Tabakaleran lan egiten zuen, eta amak arraina saltzen zuen Bretxako azokan. Aitaren arrebak ere Tabakaleran lan egiten zuen; zigarrera zen.

8. Muñoaren eskolan, Elbira Zipitriarekin

- **Erref:** DON-077/012
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Umetan, Muñoaren eskolan, Joan de Bilbao kaleko "euskarazko lehendabiziko eskolan", ibili zen Manoli. Elbira Zipitria izan zuen andereño; hari buruz hitz egiten du. Mutilen eskola Kanpandegi kalean zegoen: "mutilen eskola zen izugarri ederra, pilotan aritzeko frontoi eta guzti eta meza emateko kapila ere bazegoen han". Gero, Lizarango mojen eskolan ibili zen.

9. Konstituzio plazan sokasaltoan

- **Erref:** DON-077/016
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:16:23. **Bukatu:** 00:16:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Ume garaian, Konstituzio plazara joaten ziren jolasera. Sokasaltoan ibiltzen ziren han. Aitarekin gaztelu aldera joan ohi zen.

10. Bizkaia aldera ihesi I

- **Erref:** DON-077/021
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:22:02. **Bukatu:** 00:24:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihesi egin beharra

Laburpena:

Gerra garaiko oroitzapenak. Indar gabeko bonba bat etxeko barne-patiora erori zela gogoratzen du. Gertaera horren aurrean, Manoli eta etxeakoak

Bizkaia aldera joan ziren amaren osaba baten etxera. Osaba hori Donostiara joan zeneko oroitzapenak ere kontaktzen ditu: amaren bila azokara joan zela, arropak zapi batean bilduta ekarri zituela...

11. Bizkaitik Santanderrera

- **Erref:** DON-077/023
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:27:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gerra garaiko oroitzapenak. Hiru urte egin zituen Manoliren familiak Donostiatik kanpora bizitzen. Lehenengo, Bizkaian egon ziren, eta, gerra hara iritsi zenean, Santarrera joan ziren. Denbora horretan, Manoliren aitak Santandergo Tabakaleran egiten zuen lan. Tropak Santanderrera iritsi zirenean, Manoliren aitak Frantziara alde egin zuen itsasontzi batean; ama eta hiru seme-alaba bapora ontzi batean bueltatu ziren Pasaia. Amak jakin ez arren, haurdun zegoen.

12. Bizkaia aldera ihesi II

- **Erref:** DON-077/025
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:28:46. **Bukatu:** 00:29:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Gerra garaiko oroitzapenak. Gerratik ihesi, Manoli eta etxekoak Donostiatik Bizkaira, Getxora, joan ziren senide batzuen etxera. Tropak Bizkaira iritsi zirenean, Santanderrea alde egin zuten trenez.

13. Donostiara bueltatu

- **Erref:** DON-077/028
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:30:13. **Bukatu:** 00:31:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gerra garaiko oroitzapenak. Santandertik Donostiara bueltatu zirenean, aitona lehenengo etxea galdu zuen, eta beste etxe batean bizi zen. Harekin bizitzen jarri ziren lehenengoaren aldean etxe txikiagoa izanagatik.

14. Kaiko garbitokia

- **Erref:** DON-077/029
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:31:06. **Bukatu:** 00:33:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Kaian zegoen garbitokia. Manoliren amak etxean garbitu ohi zituen arropak, baina izeba garbitokira joaten zen lagunekin egotearren. Garbitokia nolakoa zen azaltzen du. Manoli izebarentzako tokia hartzera joaten zen garbitokira.

15. Ama, arrain saltzailea

- **Erref:** DON-077/030
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:33:02. **Bukatu:** 00:34:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Manoliren amak Bretxako goiko solairuan arraina saltzen zuen; arraina kaitik eramaten zioten azokara. Gerra denboran Donostiatik joan eta urtebeteen postuari zegokiona ordaindu ez zuela eta, behean saltzen hasi zen arraina. Goiko postuan arrain handiak saltzen zituen; behean, berriz, txikiak. Jendeak oso ondo erantzun ziola dio.

16. Jatekoa eta etxeko zereginak

- **Erref:** DON-077/032
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:34:56. **Bukatu:** 00:37:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean, familikoen laguntza izan zuten. Zer jaten zuten kontatzen du. Etxeko zereginak amak eta izebak egiten zituzten. Manoli 15 urterekin lanean hasi zen.

17. Gozokia

- **Erref:** DON-077/034
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:38:42. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak

Laburpena:

Etxe ondoko gozotegi batean erosten zituzten gozokiak. "Boloak" izeneko gozokiak erostera bidaltzen zituen aitonak. "Boloak" nolakoa izaten ziren azaltzen du: poltsa txiki bat izaten zen, bolita txikiz beteta eta hur hotzetan sartuta hartu ohi zen; gozo-gozoa izaten zen.

18. Aitona, batelarekin Kontxan

- **Erref:** DON-077/035
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak

Laburpena:

Manoliren aitona arrantzalea zen. Batelarekin ibili ohi zen Kontxan txipiroiak harrapatzen. Arrantzatutakoa bulebarreko hotel txikietan saltzen zuen.

19. Baserritarrak

- **Erref:** DON-077/038
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:42:03. **Bukatu:** 00:43:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Baserritarrek etxez etxe banatzen zuten etxea. Larunbatetan, Bretxako azokan inguruko herrietako baserritarrak barazkiak saltzen egoten ziren. Igeldeko baserritarrak zaldi-karroan jaisten ziren Donostiara.

20. 'Graficas Izarra'n lanean

- **Erref:** DON-077/041
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:43:49. **Bukatu:** 00:44:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

15 urte eta erdi zituela Miracruz kaleko 'Graficas Izarra' lantegian hasi zen lanean. Liburuak egiten ziren han: Manoli orrian pegatzeaz ardurartzen zen.

21. Ondarreko kartzelara presoak bisitatzera

- **Erref:** DON-077/045
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:48:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Manoli katekista izan zen. Ezkon ondoren, Ondarretako kartzelan preso zeudenei bisita egin eta paketeak eramatera joan ohi zen.

22. Jaunartzea

- **Erref:** DON-077/049
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:53:10. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Manolik Santa Maria parrokia egin zuen jaunartzea. Jaunartzera jantzita nola joan zen azaltzen du.

23. Igeria eta bainua

- **Erref:** DON-077/053
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:55:22. **Bukatu:** 00:56:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Kaian ikasi zuen igerian, aitarekin. Aquarium aldera joan ohi ziren bainua hartzera. Gero, berak haurrak izan zituenean, Club Nautico aldean bainatu ohi zen.

24. Estropadak

- **Erref:** DON-077/059
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:00:05. **Bukatu:** 01:01:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Estrapadak gaztelutik ikusten zituzten. Mutrikuko familiakoak Donostiara joaten ziren egun horretan. Gizonek apustuak egiten zituzten kaian.

25. Udarako salvea

- **Erref:** DON-077/063
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 01:03:52. **Bukatu:** 01:04:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Udaran, erreginak etortzen zirenean, Salvea egiten zen. Kale Nagusitik txistulariak etortzen ziren, eta haien atzetik erreginak oinez joaten ziren Santa Maria parrokiara.

26. Gabonak

- **Erref:** DON-077/067
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 01:06:57. **Bukatu:** 01:07:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetan, jaiotza jartzen zuten bera umea zela. Etxean nolako giroa sortzen zen kontatzen du. Gabon kanta zati bat abeste du: "Gabon gauian ohitutzen degu...".

27. Osaba Isidro

- **Erref:** DON-077/069
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:07:45. **Bukatu:** 01:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitaren anaia, osaba Isidro, musikaria zen. Txistua jotzen zuen, eta kanturako zaletasun handia zuen. Gerra garaian hil zen osaba. Gudarien kapitaina zen. Gernikan lurperatu zuten.

28. 'Donostiako hiru damatxo'

- **Erref:** DON-077/071
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 01:08:32. **Bukatu:** 01:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>'Donostiako hiru damatxo' kantaren bigarren betsoa kantatzen du.</p>

Transkripzioa

Donostiako Gaztelupeko
Sagardoaren gozua,

hantxen edaten ari nitzala
hautsi zitzaidan basua.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
basua kristalezkoa.

29. Igeldoko dantzariak ezkontzan

- **Erref:** DON-077/073
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:10:22. **Bukatu:** 01:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Manoliren senarra dantzaria zen, eta Igeldoko dantzariei dantza irakasten aritzen zen. Beraien ezkontza egunean Igeldoko dantzariak dantza egin zien. Ezusteko polita izan zela dio.

30. 'Ume txikia negarrez dago'

- **Erref:** DON-077/077
- **Iraupena:** 0:00:16. **Hasi:** 01:13:06. **Bukatu:** 01:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>'Ume txikia negarrez dago' kantaren zati bat abesten du.</p>

Transkripzioa

Ume txikia negarrez dago
ama emaizu titia
aita gaiztua tabernan dago
pikaro jokalaria.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com